



INAZIO ZUBIZARRETA HLHI INDARKERIARIK GABEKO GUNEA.

(Familientzako gida)



BIZIKASI EKIMENA

- **HELBURUA:** Bizikidetzta positiboa eta ustezko jazarpen egoeren aurrean zero tolerantzia duen eskola seguru bat eraikitzea.
- **GATAZKAK EDO TRATU TXARRAK:** ikasleen artean sortzen diren borrokak edo haserreak jolas baten ondorioz adibidez, intentzio txar gabekoak. Horrek ez du esan nahi eskolaren partetik ez dela egongo esku hartzerik. Elkarbizitza proiektuan markatzen diren pausuak jarraituko dira.
- **JAZARPENAK:** ikasle bat behin eta berriro, ia egunero, epe luzean, beste ikasle baten edo batzuen ekintza ezkorren menpe dagoenean. Erasotzeko eta min egiteko asmoa dute. Ikaslea babesgabeko egoeran dagoenean eta irakasleek ikusten ez dutenean.

MOTAK: fisikoak, ahozkoak, bazterketa soziala, arrazakeria, homofobia, cyberbullying.



EKIMENAREN FASEAK

Eskolak dituen tresnak

1.FASEA: Probentzioa eta prebentzioa

- Hezkuntza komunitatea informatzea.
- Talde dinamizatzaileria osatzea (zuzendaria, ikasketa burua, aholkularia eta Elkarbizitza arduraduna) jazarpen kasuak eramateko.
- Behatokia, eskolako elkarbizitza positiboa sustatzeko.
- Jarduera mailakatuak zehaztea indarkeriarekin bukatzeko.

2.FASEA: Jazarpenaren aurreko esku hartzea

- Planifikatutako jarduerekin arrisku egoerak identifikatzea, bereziki, honako egoerentarako diseinaturik daudenak.

3.FASEA: Ekimenaren ebaluazioa eta jarraipena

- Aukeratutako jarduerak eta haien emaitzak ebaluatzea hobetzeko asmoz.

Gatazkak edo tratu txarrak (eskolako arautegia)

- Inplikaturako ikasleekin hitz egitea. Ez bada oso larria adostokiak erabiltzen dira beraien artean konpontzeko.
- Arazoa konplexuagoa bada, gertaera jasotzeko eranskina betetzen dute, beraiek jartzen dituzte neurri zuzentzaileak eta etxera eramaten dute familiak jakitun egoteko eta sinatzeko. **Etxean ikaslearen aurrean ez duzue inoiz ezadostasunik erakutsiko, sinatu eta eskatu hitzordua tutorearekin edo zuzendaritzakoekin.** Horrela ez bada konpontzen, Elkarbizitza Batzordeak eramango du kasua.
- Jarrera desegokia hiru aldiz errepikatzen bada, Elkarbizitza batzordera eramango da kasua larria bihurtu delako.

Ustezko jazarpen kasuetan (Hezkuntza Ikuskaritza)

- Jazarpenaren berri edozeinek eman dezake zuzendaritzan edo tutorearen bidez.
- **0 eranskina** betetzen da. Ez dago elkarrizketarik. Zehatz mehatz idazten da entzundakoa eta zuzendaritzak informatzen du zer nolako babes neurriak hartuko diren.
- **Berritzegune eta Ikuskaria** jakitun jartzen dugu momentuan.
- **Talde dinamizatzailea** biltzen da, behaketa egiten da eta **1.eranskina eta A txostena betetzen da** behaketa datu eta erabakiarekin. Familiak informatzen dira.
- Jazarpena dagoela baieztatzen bada, 22 egunetan **B txostena** betetzen da.
- Kasu biei hezkuntza erantzuna dagokie.



NOLA DETEKTATU ZERBAIT GERTATZEN DELA

- Min ezberdinak somatizatzea.
- Etxera joateko nahia.
- Ohituren aldaketak (eskolara joateko, lagunekin).
- Aldaketak eskolako errendimenduan.
- Aldaketak jateko eta lo egiteko ohituretan.
- Arropa edo materialen kalteak, ubeluneak, zauriak...
- Beste ume txikiagoak mehatxatu edo erasotu.
- Ezer ez zaiola gertatzen esatea aurreko puntuetan agertzen dena justifikatzeko, txarto sentitzen dela ukatzea.

IDEIA FALTSUAK JAZARPENAREN INGURUAN

- Umeen gauzak direla eta gainera izaera gogortzeko dela.
- Biktimak merezi du.
- Defendatzeko erantzuteko erarik onena erantzutea da.
- Mutilen kontua dela, eraso zuzena erabiltzen dute eta gehiago ikusten da.
- Erasotzaileak familia desegituratuetan bizi dira.
- Biktimak ahulak eta indargabeak direla
- Hobe da ikusle moduan gelditzea.
- Biktimak bakarrik behar du laguntza eta erasotzaileak zigorra.



ZER EGIN DEZAKEZUE...

...zuen seme-alaba BIKTIMA BADA:

- Entzutea, sinestea eta zehaztasunak idaztea.
- Zuen kezka adierazi eta laguntza eskaini.
- Neurtu ondo garrantzia eta larritasuna.
- Inoiz ez jarri ustezko erasotzailearen edo bere gurasoen aurrean errieta egiten
- Eskatu batzar bat tutorearekin kontatzeko dakizuna.
- Sentitzen baduzue tutoreak ez duela kontuan hartzen, zuzendaritzarekin hitzordua eskatu.

... zuen seme-alaba ERASOTZAILEA BADA:

- Lehenengo onartu behar duzue.
- Laguntza eskaini, norbere eskubideak defendatu besteenak errespetatuz.
- Galdetu zein den arrazoia, eta lagundu sortzen duen minaz jabetzen.
- Tutoreari komentatu dakizuna. Elkarrekin adostu ekintza zehatzak jarrera desegokia gelditzeko.
- Eman aukerak gauzak ondo egiteko eta saritu.

EGIN BEHAR EZ DENA



- Indarkeria erabili erasotzaile edo bere familiaren kontra.
- Saiatu zuek bakarrik arazoa konpontzen.
- **KONFIDENTZIALTASUNIK EZ GORDE.**